

Esku-hartze sindikala lan istripuen aurrean

lan istripu
gehiagorik **ez!**



Aurkibidea

1 Sarrera	3
2 Aurrekariak	4
2.1. Istripuaren aurretik	5
2.2. Istripua bitartean	5
2.3. Istripuaren ondotik	7
3 Ondorioa	9
ISTRIPUA GERTATZEN BADA	10

1

Sarrera

Enpresetako prebentziorik ezaren ondorioz eta, batez ere, lan-merkatuko kolokatasunaren ondorioz, urtero milatik gora istripu gertatzen dira Hego Euskal Herrian. Lan istripuak dakarren osasun-galerak ondorio konponezinak eragiten dizkio langileari, aldi baterako edo betirako ezgaitzen baitute, eta zenbaitetan, heriotza ere eragiten diote.

Gaur egungo abagune honetan, etengabe ari dira lan eta gizarte arloko esku-bideak murrizten, eta horrek ere langileriaren lan osasuna eta segurtasuna kalte-tu ditu. Enpresak, izan ere, arlo horretako inbertsioak ari dira nabarmen murrizten, eta, administrazioek, aldi berean, izugarritzko murrizketak egiten jarraitzen dute lan-osasunera bideratzen diren aurrekontuetako kontusailetan.

Altueratik erortzea, makinek langileak harrapatzea, lan-baldintzek eragindako bihotzekoak, auto-istripuetan edo in itinere hildako pertsonak, produktu kimikoek eta/edo amiantoak eragindako minbiziak, arazo psikosozialetatik datozen gaixotasunak... Kasuak ugariak baino ugariagoak dira, eta horrek agerian uzten du zernolako gabeziak dauden gure lantoki askotako lan osasunean eta segurtasunean.

Ekintza sindikal eraginkorra behar da, arriskuak desagertu edo ahalik eta gehien murriztuko badira. Hau da, lan osasuna agenda sindikalean txertatu beharra dago. Horrenbestez, kolokatasuna salatu beharra dago; salatu ere, ez dagoe-la segurtasun neurririk; erabiltzen diren segurtasun neurriak eta inbertitzen diren bitartekoak ez direla eraginkorrak edo ez direla nahikoak, eta proposamenak eta alternatibak landu behar direla.

Gida honek, beraz, horretan lagundu nahi du. Horrela, “Esku-hartze sindikala lan istripuen aurrean” izenarekin, lan bat garatzen saiatu gara, delegatuek jakin dezaten zer pauso eman behar diren lan istripu bat aurrez prebenitzeko eta, lan istripua gertatzekotan, nola jokatu behar den.

Hortaz, prebentzio lana abiapuntu hartuta, eta borroka eta mobilizazioa bidelagun direla, guztiz bitarteko beharrezkoak baitira, aldarrikapen historiko hau bultzatu beharra daukagu: hots, enplegu segurua eta osasungarrirako eskubidea aldarrikatu behar dugu, horrek aldi berean jende guztiarentzako lan eta bizi baldintza duinak ahalbidetu ditzan.

2

Aurrekariak

Dakigunez, prebentzioa guztiz beharrezkoa da istripurik ez gertatzeko, eta, gertatzekotan, ondorioak ahalik eta txikienak izateko; hortik heldu dira, beraz, prebentzioa abiapuntu gisa lantzeko garrantzia eta arrazoia. Enpresan guztiz beharrezkoak dira segurtasuna eta osasuna, prebentzioa eraginkorra, egiazkoa eta planifikatua izan dadin: prebentzioak, hortaz, eraginkorra izan behar du, enpresan dauden arrisku guztiak jorratu eta haiei erantzun behar zaielako; egiazkoa ere, enpresaren eguneroko jardunaren zati funtsezko eta oinarrizkoa izan behar duelako; eta, planifikatua, horrelaxe ezartzen eta antolatzen direlako arlo hau jorratu eta hobetzeko lehentasunak, bitartekoak eta konpromisoak.

Arrazoia edozein dela ere, prebentzioak huts egin eta istripua gertatzen denean, ondoren egin beharreko pausoek bi helburu dituzte: alde batetik, istripuak eragin dituen ondorioak azkar, eraginkortasunez eta baretasunez ahalik eta gehien murriztea, eta, bestetik, istripuak kaltetu duenari edo dutenei eta senitartekoei laguntzea.

Aldi berean, eta zeharka bada ere, ikusiko dugu zer sendotasun duen eta egiazki zer ezarpen-maila duen enpresan dagoen larrialdi planak.

Istripu guztietan hiru fase daude, haien garrantzia eta ondorioak (arina, larria, oso larria edo hilgarria) alde batera utzita: aurrekoa, bitartekoa eta ondokoa.

2.1. Istripuaren aurretik

Lan arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak ezarritako jarraibideak betetzeko, "prebentziorako delegatuek, beren eskumen eta ahalmenen barruan, jarduketak garatu beharko dituzte enpresaren baitan prebentzioa sustatzeko."

Ekintza horiek bideratuak daude lan-arriskuen prebentzio planaren jarraipen zehatza egitera, plana oinarri oinarrizkoa baita prebentzio eraginkorra eta egiazkoa lortzeko. Hartara, prebentziorako delegatuek planaren ezarpenean parte hartu beharko dute. Nola? Besteak beste, arriskuak identifikatuz, arriskuak eba-

luatzeko lanetan lagunduz, prebentzio jardueren planifikazioan lagunduz edota beharrezkoak diren giro neurketa higienikoetan parte hartuz; hori guztia, plana egiazki gauzatuko dela ziurtatzeko eta gogoan helburu bakar bat hartuta: hots, istripua gertatzeko posibilitatea ahalik eta gehien murriztea.

Aipatutako lana egiteko, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legeak eskumen batzuk ematen dizkie hala delegatuari nola Segurtasun eta Osasun Batzordeari; esaterako, teknikariei eta lan-ikuskatzaileei bisitetan laguntzea, enpresa barruko prebentzioari buruzko agiri guztiak eskura izatea, eta, era berean, jarduera ere geldiaraztea, uste dutenean jarduera horrek arrisku larria eta berehalakoa dakarkiola langileei (21. artikulua). Azken kasu horretan, erabaki hori berehala komunikatuko zaie lan agintaritzari eta lan-ikuskaritzari; lan-agintaritzak, bere aldetik, hogeita lau orduko epean, erabakia deuseztatu edo berretsi egingo du. Deuseztatzen badu, erabaki horrek ez du inolako ondoriorik izango erabakia hartu zuenarentzako.

Enpresako prebentzio plana ezagutu, hartan parte hartu eta eguneratua izatea funtsezkoa da, istripuak gerta daitezkeen arrisku guneak zein diren jakiteko eta, horrekin bat, istripua gertatu baino lehen neurriak hartzeko.

2.2. Istripua bitartean

Istripua gertatzen bada, lehenik eta behin, ekintza guztiak bideratuko dira pertsona kaltetuei behar bezalako osasun laguntza ematera. Halakoetan, oso garrantzitsuak dira, egiazki, enpresetan landu eta ezarritako Larrialdi Planak, haietan bildua baitago zer egin edo zer prozedurari jarraitu istripua gertatzen denean; era berean, langile guztientzako prestakuntza dago bildua, osasun laguntza egokia izan dadin eta kaltetua osasun zentrora modu egokian eramateko.

a) Osasun-estaldura

Larritzat jotzen ez diren istripuetan, enpresari eskabide agiri bat eskatuko zaio mutuak duen zentrorik gertuenera joateko eta pertsona zauritua hara eramango da. Beti izaten da gomendagarria zentrora lankideren batek lagunduta joatea, ondoko jarduketetan ere kaltetuari laguntzeko.

Istripua larria bada, berehalakoan 112ra deitu eta istripua izan duen pertsona osasun zentro gertueneko larrialdietara eraman behar da, eta han esan behar da zauriak lan istripu batek eragin dituela.

Denbora alferrik ez galtzeko, komeni da mutuaren helbide eta telefono guztiak eskura eta agerian izatea, bai eta anbulantzia eta ospitaleetakoak ere, eta lantaldeko langile guztiak horren berri izan behar dute.

b) Istripua jakinaraztea

Prebentzio Legeak ezarri du “enpresak prebentziorako delegatuei eman behar diela enpresan gertatzen den istripu ororen berri, haren larritasuna alde batera utzita, lekura bertara joan daitezen, baita une horretan ez badaude ere istripua gertatu den lantokian. (36.2c artikulua).

Istripua larria den aldi orotan, enpresak istripuari buruzko xehetasun guztiak jakinarazi behar dizkio Lan Agintaritzari; prebentziorako delegatuek, beraz, ziurtatu behar dute dagokien erakundeei istripua jakinarazi egin zaiela, hau da, Lan Agintaritzari, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko teknikariei, Osalani eta lurralde bakoitzeko Lan Ikuskaritzari, ahalik eta lasterren joan daitezen, behar diren prebentzio-neurri guztiak har ditzaten eta gertaera ikertzen hasteko.

Hori dela eta, behar-beharrezkoa da istripua gertatu den tokira joatea eta xehetasun guztien berri jakitea, hustuketarako maniobrek bestelako arriskuak ez dakartzatela segurtatzeko eta, horrela, langileen artean bestelako kalterik ez gertatzeko; era berean, istripuaren agertokian aldaketarik ez izatea ziurtatu beharra dago (hau da, segurtasun gailuak jartzea, lehenago halakorik ez zegoen tokian; adibidez, burdin hesiak, gatigagailuak, sareak, barandak, seinaleztapena...). Horrenbestez, erakunde eskudunak istripua ikertzera premiatzen ditugunean, hauxe ziurtatu beharra dago: istripua izan den tokira joaterakoan, istripua gertatu zenean zeuden lan-baldintza berberak aurkitu behar dituzte, izan daitezkeen erantzukizunak argitze aldera.

Alde horretatik, prebentziorako delegatuak edo langileen delegatuak berdin jokatu behar du, nahiz eta langile zauritua azpikontrata bateko izan. Izan ere, kontuan hartu behar da erabateko koordinaziopean aritu behar dutela enpresa nagusiak eta azpikontratak segurtasunaren eta osasunaren arloan, eta langile guztiak arriskuak ezagutu behar dituztela, bai eta hartu beharreko neurri zuzentzaileak ere, eta larrialdi plana ere bai; horrenbestez, istripua gertatzen denean, jarduketak berdin-berdina izan behar du.

2.3. Istripuaren ondotik

Enpresak enpresan gertatu den istripu oro ikertu, dokumentatu eta erregistratu behar du. Istripu mota nolakoa izan den, jakinarazpena honela egingo da:

- Bajarik gabeko istripuak hilero erregistratu behar dira, Delta sistemaren bitartez.

- Egun batetik gorako baja eragin duten istripuak aurreneko 5 eguneko epean erregistratu behar dira, istripu partearen bidez eta sistema berbera erabiliz.

- Istripua larria edo hilgarria izan bada, enpresak 24 orduko epea du lan agintaritzari istripua jakinarazteko.

a) Jarduketak: bide administratiboa

Enpresak arlo honetan dituen betebeharrak alde batera utzita, prebentziorako delegatuok, sindikatuko lan osasunerako kabineteak lagundurik, administrazio publiko eskudunari eskatuko diogu istripua ikertzeko, huraxe zerk eragin duen argitzeko, eta, era berean, prebentzio neurriak ezartzea galdatzeko, antzeko istripurik berriro ere ez gertatzeko, eta, azkenik, erantzukizunak argitzeko. Beraz, enpresak arlo honetan egingo dituen jarduketan gaineko jarraipen etengabea egin behar dugu.

Hartara, EAEn, idazkia Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzara zuzenduko dugu. Ordezkaritzak, aldi berean, Osalani edo Lan Ikuskaritzari txosten teknikoa eskatuko dio.

Nafarroan, aldiz, idazkia Lan Ikuskaritzara bidaliko da eta Lan Ikuskaritzako edo Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko teknikarien txostena eskatuko da.

Behin istripua salatu ondoren, eta jarduketa eta ikerketa dagokion erakundearen aurrean eskatutakoan, aurkeztutako idazkiari etengabeko jarraipena egin beharko diogu. Gauzak, zenbaitetan, ez dira guk nahi genukeen bezain azkar egingen eta jarduketak ez dira eraginkorrak izaten. Horregatik, garrantzitsua da behar diren bilerak behin eta berriz egiteko eskatzea, ikuskatzaileari edo aipatu ikerketa lantzen ari diren teknikariei gertakariaren gaineko gure irudipenak helarazteko.

b) Prestazio motak

Istripuak kaltetutako pertsonari eta senitartekoei eman beharreko estalduraren barruan, hainbat prestazio mota daude.

Bajan dagoen bitartean edo bajan ez dagoenean:

- Osasun Laguntza (kirurgia ambulatorioa, farmazia eta errehabilitazioa)

- Diru prestazioak (aldi baterako ezgaitasuna, ezgaitasun iraunkorra eta gizarte-laguntza)

Heriotza gertatu bada:

- Heriotza sorospena
- Kalte ordain bereziak
- Biziarzteko pentsioak
- Senitartekoen aldeko aldi baterako subsidioa

Prestazio errekgua nabarmendu behar da

Gertatu den istripuari dagokionez, enpresak segurtasun eta lan arloan dituen betebeharrak betetzen ez baditu, diru prestazioen % 30 eta % 50 arteko errekgua eskatu ahalko da, segurtasun neurririk ez zegoelako.

Errekgua ebazteko erantzukizuna Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari dagokio, aurrez Lan Ikuskaritzak txostena eginda, eta huraxe ordaintzea enpresari dagokio, eta zenbatekoa ez da aseguragarria. Errekgu-prozedura Lan Ikuskaritzak berak proposa dezake, segurtasun gaietako beharkizunak bete ez direla egiaztatu ondoren; bestela, pertsona kaltetuak abiarazi dezake, haren senitartekoek edo Sindikatuak berak haren izenean, Lan Ikuskaritzan eskatuz edo zuzenean Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalean. Institutuak erabakia hartuko du, Lan Ikuskaritzak txostena egin ondoren. 5 urteko epea dago eskaera hori abiarazteko.

3

Ondorioa

Istripu bat gertatzen denean, eta ustekabeaz haratago, begi bistakoa da zerbaitek huts egin duela, segurtasun neurriei dagokienez. Istripua gertatu aurretik, baldin badakigu lan-prozedurak ezegokiak direla, makineria gaizki dagoela, prebentzio plana ez dela betetzen, langileek ez dutela prestakuntzarik, etab. bidea salaketa da. Hau da, segurtasuna eta osasuna eskakizunen arlora eraman behar ditugu. Hala eta guztiz ere, zoritxarrez istripua gertatzen bada, ikerketa bat galdatuko dugu, egiazki zer gertatu den argitzeko, eta horrela jokatzeko ez bada, hori ere salatuko dugu. Azken finean, ekintza sindikal aktiboa egin behar da, salaketan oinarritutakoa, ez-segurua den gauza oro segurua izan dadin. Gauza negatiboe-tatik, beraz, alde onak atera behar ditugu, gure osasuna hobetzeko, zuzentzeko, aurrera jotzeko eta errespetatzeko.

ISTRIPUA GERTATZEN BADA

TELEFONO INTERESGARRIAK:

LARRIALDIAK ____ 112 _____

MUTUA _____

OSPITALEA _____

ANBULANTZIA _____

LAN ORDEZKARITZEN ETA LAN IKUSKARITZEN HELBIDEAK:

ARABA:

ENPLEGU LURRALDE ORDEZKARITZA

Samaniego, 2

01008 Gasteiz

Tel. 945017030

Fax. 945017031

LAN IKUSKARITZA

Alava jeneralaren k., 10-2.

01005 Gasteiz

Tel. 945142220

Fax. 945135858

BIZKAIA:

ENPLEGU LURRALDE ORDEZKARITZA

Kale Nagusia, 85

48011 Bilbo

Tel. 944031215

Fax. 944031212

LAN IKUSKARITZA

Kale Nagusia, 50

48011 Bilbo

Tel. 944398016

Fax. 944415800

GIPUZKOA:

ENPLEGU LURRALDE ORDEZKARITZA

Vitoria-Gasteiz, 3-3

20018 Donostia

Tel. 943023200

Fax. 943023201

LAN IKUSKARITZA

Podavines kalea, 1-4.

20071 Donostia

Tel. 943458700

Fax. 943463243

NAFARROA:

BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUA

Tomás Caballero parkea, “Fuerte del Príncipe, II”, 1. eraikina

31005 Iruñea

Tel. 848427645

Fax. 848423594

LAN IKUSKARITZA


Zilbetiko monasterioaren k., 4

31011 Iruñea

Tel. 948261750

Fax. 948171446

LAN ISTRIPU BATEN AURREAN EGIN BEHARREKOA



Gogoan Izan: Sindikatua abisatu

Garrantzitsua: - Lekukoen testigantza eskuratu
- Istripu gunean ezer ez lekualdatzea ziurtatu